

Zubiaurrek eta Aizpuruak Ereinen uzta handitu dute

'Izen gabeko lurrak' ipuin liburua eta 'Lehertu da festa' nobela beltza plazaratu ditu argitaletxeak

DONOSTIA – Erein argitaletxea uzta oparoa izaten ari da udaberri honean eta oraingoan, bi liburu berri batu ditu bere bildumara. Lehenengoa, Eneko Aizpuruaren *Lehertu da festa* nobela beltza, 2016ko Donostian kokatua. Bigarrena, Urt Zubiaurreren *Izen gabeko lurrak* ipuin liburua, istorio ezberdinez osatutakoa baina estiloari eta giroari esker bateratzen dena.

Lehertu da festa eleberririk Mikel Egileor kazetari eta ikerlaria du protagonista, eta Donostia 2016 ekimenaren baitan gertatzen da istorioa. Donostia Europako kultur hiriburuaren atarian da eta Egileorri hiriko gazte baten desagertzea ikertzeko enkargua eman diote. Gainera, Ertzaintza ere atzetik dabilkio gazteari, Europako kultur gertakari handia hondatu eta galarrak nahi duelakoan. "Europaren ideia asko interesatzen zait, beharrezkoa dela iruditzen zait eta, baina askotan umezurtz gelditzen da nire iritziz", azaldu zuen atzo egileak. Bere ustetan, gogoeta beharrezkoa da, bakoitzak bere egunerokoan pentsatzen du eta.

Bestalde, liburuak duen misterio



Bi egileak, atzo. Argazkia: Ruben Plaza

kutsuari buruz, desagertzea Donostia 2016 hasi baino lehenago gertatuko dela adierazi zuen, "eta horrek festa bera ere arriskuan jarriko du". Gainera, Aizpuruak azaldu zuenez, Ertzaintzak duen susmoa asko zabalduko da, "eta horrek psikosis egoera bat sortuko du herritarrengan. *Lehertu da fes-*

ta da Aizpuruak Egileor ikertzaileari buruz idatzi duen hirugarren eleberria da, *Errauts* (2011) eta *Heren-suge gorriaren urtea* (2013) plazaratu ondoren.

Bestalde, Zubiaurrek bere lehen liburuak argitaratu du, ipuinak garai ezberdinetan idatzitakoak badira ere, eta horietako batzuekin sari ezberdinak lortu ditu. *Izen gabeko lurrak* liburuak 18 ipuin ditu, gai anitzez hitz egiten dutenak eta euskalki ezberdinez idatzitakoak. "Hala ere, estilo edo atmosfera berdintsu bat dute, gaien sorrera oso ezberdina bada ere; bat lagun batek bidalitako azgazki batetik abiatu zen, beste bat eskola atarian ikusi nituen bi pertsonen elkarriketarik, eta beste bat, bizkarreko mina nuen egun batetik", azaldu zuen idazleak.

Gehienetan paisaiak indar handia dute, "askotan pertsonaia baina garrantzitsuagoak dira", egilearen ustetan, traman oso sartuta baitaude. Ipuinen amatei dagokienez, batzuk "oso borobilak" direla aitortu zuen, baina gehienetan, irakurlea "basoan galduta" utzi du. "Nire galderak daude kontakizunetan eta ez nien erantzun bakarra eman nahi", azaldu zuen. "Bukaera bat ematen diet, baina ez naiz erabat konforme gelditzen, eta modu batean, ni ere basoan gelduta gelditzen naiz", onartu zuen Zubiaurrek. —M.E.



El programador de cine de Donostia Kultura, Josemi Beltrán, y el

La 14ª edición del Surfilmfestival se celebrará del 22 al 26 del presente mes e incluye proyecciones, charlas, fiestas de diversa naturaleza e incluso sus propios juegos olímpicos.

Un reportaje de Marta Esnaola ■ Fotografía Ruben Plaza

Fiesta de surf, cine y activismo

El cine, la fiesta y la reflexión serán los ejes principales de la edición número 14 del Surfilmfestival, que se celebrará en Donostia del 22 al 26 del presente mes y que acogerá tres sesiones de proyecciones, en las que se podrán ver cinco largometrajes, ocho películas de media duración y 16 cortos. El entretenimiento será uno de los objetivos del evento, que año tras año muta y agrega nuevas propuestas a su programación, aunque este año pone especial énfasis en el activismo,

pues la ecología y la sostenibilidad estarán muy presentes en el festival.

No hay más que ver el cartel, diseñado por Miguel Brieva, para darse cuenta de ello: un estadio olímpico con olas artificiales y un Godzilla arrasando con todo protagonizan la imagen de la 14ª edición, en referencia a los juegos olímpicos que se celebrarán en Tokio en 2020. "Van a destruir tres olas perfectas para construir un puerto de vela y, paradójicamente coincide con la primera vez en la que el surf será deporte olímpico", seña-



Obra inédita de Amable Arias, en Ekain

'DIBUJOS DE POLVO'. Hasta el 30 de julio, la galería Ekain Arte Lanak acoge una muestra de los dibujos inéditos de Amable Arias: *Dibujos de polvo*. La muestra reúne un total de 25 obras del artista en monocromo y multicolor que Arias realizó de 1972 a 1975 y de

1981 a 1982. Son obras creadas sobre papel de seda, empolvado con partículas de pasteles Rembrandt. El resultado de su trabajo son dibujos sobre fondo blanco que sorprenderán al espectador por su sencillez y elegancia. Foto: Ruben Plaza